

BAKEA BIDERATU OTE DAITEKE?

Bakegintzaren sustraiak ezagutzen

Giza-aho gogotan erabilienetarik hitza eta desiragarrienetarikoa bakea dugu. Baina zein bidetatik jo? Hortxe dago koska.

Lehen-lehenik bakea zer den ere ez dakit guztiok bat gatozen. Bakea aipatzen ez dugu guztiok gauza bera esan nahi. Nazioarteko, estatu barruko talde ezberdinen arteko gudurik edo burrukarik eza?

Nola deritze gizarteko taldeen, alderdien, familien eta ezkontideen arteko burrukei? Eta giza-banakoaren barru-barrutiko dardarei? Giza-banakoari berekoikeriatik, bere sexual eta barneizaeratik, haur izatetik nagusi izatera igaro ahala, geroko bizitzari eta erlijioari begira sortzen zaion egonezin, krisiari ze izen eman?

Gizarteko bakea giza-banakoagandik dator. Baina ez egoncan geldi dagoen gizonarengandik, bere burua ongi ezagutu eta pausuz-pausu heldutasunerantz doanagandik baizik.

Bere nortasunean kontrol gabea den inor ezin bakegile izan familian. Bere baitan burruka artean murgildurik dagoen familiak ezin bakerik sortu etxetik kanporako ingurumarian. Burruka larrietan sosegurik gabe diharduen herriak ez du bakerik ekarriko nazio edo sorterrira. Zuzengabekeria eta desoreka-

ren leku erosoan den nazioa ezin nazioarteko bake-eragile izan. Guzti hau egitez esan nahi dut; hitzez, guztiek baitute ahomihietan bakea.

Alperrikoa eta kaltegarria ere bada bake-aldarrikatze hutsa, bakea dela eta komunikabideetan hitz eta pits aritzea, bakearen aurkako edo bakearen hondatzaile diren ekintzak egiten direnean: eten gabe bultzatzen da indarkeria. Nazioartean, Estatu barruko nazioetan, herrietan, alderdi politikoetan, gizartean, salerosketan, kulturean, komunikabideetan: giza-ekintza guztietan elkarren lehian dihardute gizonak, nork-nor atzean utzi eta azpiratuko. Horrek, legez nahiz legez kanpo, gizonaren zapalketa dakar. Horrelako gizartean ez dago bakearentzat lekurik. Estatuek gudu armaturik ez izatea dute helburutzat; horri esaten diote bakea. Eta «bake» delako horretan, gudu armatua, arma eta ezpata-hotsa eguneroko arrisku larria izango ditugu.

Bakeak giza-banakoarengan eta familian hasi behar du. Oraingo gizartean, oster, (bere komunikabide, lege eta abarrek) bakea murriztuz doa. Bakearen ohiua ahorik aho dabil, baina aldarrikatzen den bake hori nolakoa den inork ez du azaltzen... Zer da bakea? Zapalduak isilik egotea? Arma-hotsa isiltzea?

«Burruka» eta «gudua» gizonaren barruan erretzen dira. Gizakiaren norberekeriak eraginik. Bakea bakoitzak bere buruaren eta inoren artean onartzen duen orekatik sortuko da bai familian, bai gizartean eta baita nazioartean ere.

Norbaitek, zuzengabekeriak jokatu dutela berarekin, uste badu, barruko oreka desegin egingo zaio eta zuzengabekeriaren erruduna gorrotatzera joko du, bestelako eraginek edo barruko birtuteek orekan eusten ez badiote behintzat.

Norbere burua desegiteko biderik zuzen eta laburrena gorrotoa. Gorrotoak ez du lehengoz desegiten gorrotatua, gorrotatzailea bera baizik. Helburua besterik izan arren, bere burua hondatuko du. Horrela norbere hondamendiak inguruaren, gizartearen hondamendia dakar.

Bakearen bila abiatzen bagara, gorrotoaren sustriak, haren zergatiak deusezratu behar dira. Gorrotodunak zapaltzen ihardutea alperrikoa da, bakea eraiki nahi bada.

Gizartearen portaera (gobernuarena eta agintariena) honela taitutuko nuke: bere gizentasuna dela eta kezkaturik berba eta berba egin, baina gero sekulako tripakadak egien dituenaren antza du... kezkaren kezkaz histeria antzeko batetaraino heltzen da eta bere kezka histerikoa inguruko guztiéi kutsatzen dio.

Bakea aldarrikatu, baina burrukaren hazia creinez; ETA-ren eta beste talde armatuen desegitea bilatu, baina eurak ere gogorkeriaren erru berberaren etoriz... hori kontraesan larria da eta eraiki nahi dutela dioten bakearen etxeari zimenduak jatea. Bakearen bidea hori baino errazago eta benetagoa da:

- Egizaletasun eta zuzentasun gehiago komunikabideetan.
- Inoren bizitzari (edonorenari) begirune handiagoa.
- Askatasuna eta demokrazia benetakoagoa.
- Poliziaren errepresiorik ez. Kultura eta gizarte-zapalketarik ez.
- «Arerioari» begirune handiagoa.
- Gizatasun eta kristautasunaren kaltetan medio ezberdinak erabiltzeari utzi.

Bakeak pertsona osoarengan du sorburua. Honen zatiren deseginez gero, desoreka, zuzengabekeria eta burruka sortzen dira.

Gizakiak ezin du bakerik lortu bere burua ezagutu eta onartu ezik. Gure bidean burruka eta ondoeza sortzen dira. Hori gainditzeko ezin dugu ahaztu mugatuak, akasduak garena; beste premia dugula haiek maitatu, osatu eta heldutasunera eramán gaitzan. Azkenez izaki guztion gailur den Jainkoa ikusmiran dugula jokatu behar.

Gizona bere barne-izaeran suntsituz ezin da bakerik eraiki. Irteera gabeko zurrumbiloi, litzateke hau. Izan ere estatuek euren

gogorkeriaren bidez suntsitu nahi dute inoren gogorkeria. Bide batez gudua eta gogorkeria ereiten dira gizonaren barneizaeraren aurka eginez. Ereindako gogorkeria hori erne dadi-nean, Estatuak bere gogorkeriaz erasoko dio. Horrela gogorkeriaren gorpila eten gabeko abiadan jartzen da.

Latinezko PAX hitzak (*bake, paz, pace, paix* etab.) «pactum» edo itunaren esangura du; hau da, talde ezberdinen artean lortutako akordioa. Pertsonen edo nazioen arteko akordioa esan nahi du, lege eta politiko-oinarriak dituelarik. Bake honek armak isiltzea bakarrik esan nahi du. Horixe da gaurko gizartean gehien zabaldurik dagoen bakearen ideia.

Bibliak eskaintzen digun bakearen esannahia askoz ere sakonagoa eta osoagoa da; eragingarriago eta liluragarriago ere bai. XALON, zentzu zabaleko hitza. «Gorputz eta arimaz ongi izatea» esan nahi du; gizaki osoaren egoera zoriontsua. «Norbere osotasunean bizi». Bizi ez gero bere zentzu estatikoan, dinamikoan baizik. Eta gizarteari gagozkiola, egoera zoriontsua pertsonen artean, familien eta herrien artean, senar-emazteak elkarrekin eta azkenez gizonaren eta Jainkoaren artean.

Horregatik Jainkoa, bakearen Jainko legeaz agertzen da. Berak eman diezaioke mugatua eta hutsuneduna den munduari bere bake osoa. Hutsunean mugatasunak beteko dituen bakea.

Kristo bakegile moduan agertzen zaigu Itun Berrian, bere barkamenez zuzengabekeriak utzitako hutsuneak betetzen baititu. Gizonarentzat bere indar hutsez ezinezkoa da bakea. Mugatasunak, iraun nahiak, desbidetatzeri darama, zuzengabekeria sortuz.

Bakea Jainkoaren dohaina da, berak zuzentzen baitu gizakiaren okerra eta bete haren mugatasunak utzitako hutsunea. Eta hau, gizonaren arlo edo atal guztietan.

Oraingo egoeran, bere profeta-eginkizunean Ebanjelioa

iragarteko abagadunea du Elizak. Gobernuak eta beronen tresnek faltsututako bake-ohuaren atzetik joatea ez da komeni, orduan Elizaren mezua alperrikaldua eta lorrindua geratuko bailitzateke.

Kanpaina horietatik aske, bestek egiten ez duten bezala, era berezi batez bakea iragartzen dago Elizaren aukera aparta. Gobernuan eta hauen tresnen joko faltsuetan kutsatu gabe. Profeta izatea, horretarako bitarteko batzuk badiuenez eta bere ahalbidetzen arabera horretarako eginbeharra duenez, egia esatea da.

Elizak, Gobernuen eta hauen tresnen handikeriazko tokira igonik, ez dio uko egin behar bere profeta-eginkizunari. Guxiago oraindik gobernu horiek egia, euren komenientzien arabera, lausotu, manipulatu eta gizona bere barne-izaera ezpiritualcan zapalduz, gogorkeria handiagoa sortzen ari direnean.

Elizak adorez eta gogotsu, mezu gezatuak emanaz agintaritzaren ederra egin gabe, profeta-lanari heltzen badio, abagadune ezin hobeia du une honetan.

Bakeari gagozkiolarik, Elizak profeta-lana egiteko aukera ezin hobeia du: gaitza salatu, ez gorrotatzen duenaren gaitza barkarik, baita gorrotoa sorterazen dutenea ere; kontzientziak atzipetuz, gerraren eragile direnak biziki salatu.

Gaizki bideratua eta hondamendirantz doan gizarte honek inoiz baino beharrian handiagoa du Elizarena; bakearen mezua, zuzentasunaren mezua eta Jesusen benetako erakutsia aldarrikatuko dion Elizaren beharra badu gizarte honek, inoiz baino larriagoa, izan ere.

U. Txakartegi